

# KOSTUEN EGITURA

- **Kostu finkoak** : Taldekideen soldata eta aplikazioa sortzea.
- **Kostu aldagarriak**: Maparen eraldaketa, aplikazioa sortzea. Sartutako eta ateratako diruarekin etekinak ikusiko dira. Proiektua aurrera joaten denean beste aldagai batzuk aztertu beharko ditugu.

AKTIBO FINKOIA: Modu iraunkorrean eragiten duten elementuak; ez dira salmentarako erabiltzen, enpresak jardunean jarraitu ahal izateko baina.

AKTIBO FINKO MATERIALA: Aurrekoa, baina uki daitezkeen elementuak, higigarri nahiz higiezin.

AKTIBO FINKO EZ MATERIALA: Aktibo Finkoa, baina ondasun hauek ezin dira ukitu, balorazio ekonomikoa izan dezaketen eskubideak, urte askotako inbertsio bezala egin duenean...

FINANTZAZKO AKTIBO FINKOIA: Finantzazko inbertsioak izan daitezke, urtebetetik gorako epemugak dituzten inbertsioak (errenta finkoko balioak, esaterako), Burtsan egiten dituzten inbertsioak...

Kasu honetan, aurreikusi dugu gure lehenengo urtean 1000 pertsona erosiko dutela gure aplikazioa.

647 pertsona 14€ ko tarifa erosi dute eta 353 pertsona 15€ koa.

Urte horretan lortu dugun etekina hau da:

$$647 \times 14 = 9.058\text{€}$$

$$353 \times 15 = 5.295\text{€}$$

**Guztira:** 14.353€

Diru sarrera honetatik, gure soldatak ordainduko dira. Gure soldatak, 1.700€koa izango da.

$$1.700\text{€} \times 4 = 6.800\text{€}$$

Etekin guztia ken gure soldatak:

$$14.353\text{€} - 6.800\text{€} = \mathbf{7.553\text{€}}$$

Soberan dagoen diruarekin, aplikazioa sortu duen pertsonari ordainduko zaio eta 2000€ izango dira.

$$7,553\text{€} - 2,000\text{€} = 5,553\text{€}$$

Gero, lokala ere ordaindu behar da. Hilero 300€ dira. Urte batez alokatu dugunez,  $300€ \times 12$  hilabete = 3,600€.

Orduan, geratu zaigun etekina ken alokairua hau izango litzateke:

$$5,553€ - 3,600€ = \mathbf{1,935€}$$

Kontuan izan behar da lehenengo urtea izango dela eta hurrengo urteetan etekin gehiago ateratzea espero dugula. Hobekuntza hori, aplikazioan berrikuntzak eginez eta jende gehiago erakartzen lortuko da.

